



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

5. ERABAKIA: ARROSATEGIA ETXEAREN XEDEA ALDATU ETA EREMU PUBLIKOAK SORTZEKO OBRA KOORDINAZIORAKO DEIALDIA (1.1 nomenklatura)

Ramuntxo JORAJURIA jauna, gaiarekin interesak dituela-eta, gelatik atera da.

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die Arrosategia etxearen xedea aldatzeko proiektua, Herriko Etxea eta posta agentzia bertan aterpetzeko, eta eskolekin loturan liratekeen eremu publikoak sortzeko.

Azaldu du, prozedura egokituko deialdi mugatua antolatu duela afera horren segitzeko eginkizuna izanen duen obra-koordinatzailea hautatzeko.

Zehaztu du deialdia bi alditan egin dela. Lehenik, deialdia plazaratu du. Hamasei hautagaik aurkeztu dute txostena 2023ko abenduan. Hautagaien txostenak Pirinio Atlantikoetako AHIArekin (Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Aholkularitza) eta Euskal Elkargoaren herrientzako ingeniariak misioarekin aztertu dira, eta lau hautagai atxiki.

Lau hautagai horiek lekua bisitatu ahal izan dute eta beren eskaintza 2024ko otsailerako aurkeztu. Gainera, lau hautagaiek zuzeneko aurkezpena egin dute 2024ko martxoaren 14an. Orduan, hautagai bakoitzak bere taldea eta lanen kudeatzeko metodoa aurkeztu ditu.

Urrats guzi horiei esker eskaintzen analisisa zehatza egin ahal izan da.

Herri Biltzarrari eskuratu diren eskaintzen eta analisisa txostenaren berri emanik, Auzapezak merkatua honako hautagaiari esleitzea proposatu du:

- SELARL Gauche Atelier arkitektura bulegoari, Gauche Atelier bulegoak eta Climelec fluides, Luro structure, Karrika VRD eta Pays Paysage enpresek osatu taldearen mandatari gisa, 119 836.84 €ko zergaz kanpoko zenbateko batentzat.

Herri Biltzarrari proposatu dio horretaz erabakitzea, eta mahai gainean ezarri ditu eskuratu diren eskaintza guztiak eta horien analisi txostena.

Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari SELARL Gauche Atelier arkitektura bulegoarekin 119 836,84 € ZK-ko kontratua izenpetzeko.

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, horri loturiko erabaki oro hartzeko eta agiri oro izenpetzeko, besteak beste deialdiaren moldatzea, baldin eta zenbateko orokorra ekintza horretarako onartu diren kredituen azpitik egoten bada.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balizko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.